

## AKTA

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2021eko abenduaren 30a, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 19:30      **BUKATZEKO ORDUA:** 20:40

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Anuska Esnal Oliden

**Zinegotziak**

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

### Gai-zerrenda

- 1.- Berrestea, egoki bada, 2021eko abenduaren 21eko 627 zenbakidun alkate-dekretua.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko aparkalekuak erregulatzeko udal-ordenantzari.

- 3.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko udalerriko bide publikoetan trakzio mekanikodun ibilgailuak aparkatzeko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari.
- 4.- Behin-behineko onarpena ematea, egoki bada, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari. Aldaketa puntuala Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituei dagokie eta Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatu du
- 5.- Eskariak eta galderak.

## **Esan-eginak**

### **1.- BERRESTEA, EGOKI BADA, 2021EKO ABENDUAREN 21EKO 627 ZENBAKIDUN ALKATE-DEKRETUA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2021eko abenduaren 21eko 627 zenbakidun alkate-dekretuaren bidez, alde batetik, ONARTZEN DA IKER ZUMETA MENDIZABAL udal-langileak egin duen eskaera, berak betetzen duen udal-kanpineko udako ohiko lanpostuari dagokion ordainsari-maila E-8 mailara aldatzeko, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez; eta, bestetik, ONARTZEN DA dagozkion egokitzapenak egitea Udalaren plantilla organikoan eta lanpostuen zerrendan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Pertsonala batzordeak 2021eko abenduaren 16an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**BERRESTEA** 2021eko abenduaren 21eko 627 zenbakidun alkate-dekretua. 2021eko abenduaren 21eko 627 zenbakidun alkate-dekretuaren bidez, alde batetik, ONARTZEN DA IKER ZUMETA MENDIZABAL udal-langileak egin duen eskaera, berak betetzen duen udal-kanpineko udako ohiko lanpostuari dagokion ordainsari-maila E-8 mailara aldatzeko, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez; eta, bestetik, ONARTZEN DA dagozkion egokitzapenak egitea Udalaren plantilla organikoan eta lanpostuen zerrendan.

### **2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO APARKALEKUAK ERREGULATZEKO UDAL-ORDENANTZARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Ordenantza hori Udal Zirkulazioko Ordenantzaren 7. artikularen esparruan garatu da, eta haren helburua da Orioko udalerriko aparkalekuekin eta horien erabilerarekin lotutako zenbait alderdi arautzea, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren arintasuna hobetzeko eta aparkalekuen errotazioa eta erabilera egokia bermatzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza-batzordeak 2021eko azaroaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko aparkalekuak erregulatzeko udal-ordenantzari.

**2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA**, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal-araudi hori interesatuen eskura dago udal-idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea agortu eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal-araudia, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate zinegotziak hartzen du hitza, Hirigintza-batzordeko presidentea den aldetik, eta adierazten du, lehenik eta behin, oso pozik dagoela udal-ordenantza hau udalbatzarrak aho batez onartu duelako. Ordenantzaren xedea trafikoa antolatzen eta hobetzen laguntzea da, 3.500 kg bitarteko ibilgailu-mota edo kategoria guztiak bide publikoko eremu batzuetan aparkatzea mugatuz garai eta ordu jakin batzuetan.

Helburua da oreka handiagoa lortzea herriko hainbat tokitan aparkatzeko dagoen eskaintzaren eta eskariaren artean, eta, horretarako, Udalak neurriak hartuko ditu, zuzenean edo zerbitzua emateko kontratatutako enpresen laguntzaz.

Ainara Munduate zinegotziak adierazten du udal-ordenantzak jasotzen dituela Orioko merkatariek egindako ekarpenak eta proposamenak, jarraipen-bilera ugari egin direlako gaia aztertu eta baloratzeko. Adierazten du, baita ere, Udalak enpresa baten bidez zaindu eta kontrolatuko dituela aparkatzeko orduak eta tokiak, eta, horretarako, dagokion lizitazioa egingo duela, eta herrira kanpotik datozen bisitarien diruak ordainduko duela zerbitzuaren kostua.

**3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKOETAN TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK APARKATZEKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzordeak 2021eko abenduaren 29an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko udalerriko bide publikoetan trakzio mekanikodun ibilgailuak aparkatzeko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

**a) Erakutsita dagoen lekua:** Udaletxeko idazkaritzan.

**b) Espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkezteko epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

**c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

**d) Aurkezteko lekua:** Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

**e) Zein organoren aurrean:** Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

#### **4.- BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA PUNTUALARI. ALDAKETA PUNTUALA DIKE-KOFRADIA EREMU URBANISTIKO EZ-JARRAITUEI DAGOKIE ETA DIKEKO KONTZERTAZIO BATZORDEAK SUSTATU DU**

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du.

Orioko udalbatzarrak 2018ko abenduaren 27an egindako ezohiko bilkuran behin betiko onartutako eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2019ko martxoaren 14an argitaratutako plangintza- eta kudeaketa-hitzarmenaren esparruak arautzen du Dike-Kofradiako esku-hartzea. Hitzarmen hori Orioko Udalak, Orioko San Nikolas arrantzale-kofradiak eta Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 14. eremuko –Dike–Kontzertazio Batzordeak sinatu zuten. Azken hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hirigintza Erakundearen Erregistroan inskribatuta dago eta Dike azpierzemuko lurren jabetza osoa ordezkatzen du.

Aldaketa puntual hau hitzarmen horretatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak betetzeko ezartzen da, eta aurrea hartzen dio Orioko 2012ko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko dokumentuaren tramitazioari, 2018an onartutako eta Dikeko

Kontzertazio Batzordeak, Udalak eskuordetuta, sustatu zuen HAPOa berrikusteko irizpide eta helburu orokorren arabera. Aldaketa puntualak barne hartzen ditu 2012ko HAPOko Dikearen 14. eremua eta Orioko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziko Kofradia eremua, bizitegitarako erabilera nagusia duen lurzoru urbano ez-jarraitua osatuz: eraikuntza-programa Diken gauzatuko da eta Kofradiako orubea ekipamendu publikorako eta pribaturako (Kofradia erabilera) lurzoru gisa kalifikatuko da.

Aldaketa puntualaren dokumentu urbanistiko honek Dike-Kofradia eremu ez-jarraituaren egiturazko antolamendua eta antolamendu xehaketa biltzen ditu eta, horrela, garapen-planeamendua formulatu beharra saihesten du. Idazketaren kostua Kontzertazio Batzordeak hartuko du bere gain eta eremu ez-jarraituaren jabeen artean ordainduko dute.

Era berean, dokumentu urbanistiko horrek antolamenduaren koordinazioa bermatzen du Dike eta Kofradia azpieremuen eta dagoeneko garatuta dauden eremu mugakideetan ezarritako antolamenduaren artean, eta bermatzen du antolamenduaren funtsezko elementu komunitarioak artikulatzen direla eta indarrean dagoen plangintza orokorrean ezarritako sistema orokorrekin integratzen direla.

Orioko udalbatzarrak erabaki hauek hartu zituen, besteak beste, 2020ko abenduaren 23an egindako ezohiko bilkuran:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari. Aldaketa puntuala Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituei dagokie eta Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatu du.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, 45 laneguneko epean, Lurraldearen Antolamenduko Planak eta Hirigintza Antolamenduko Tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 5.2 artikulua arabera..

Inpaktu linguistikoaren ebaluazioaren dokumentua eta ingurumeneko azterketa estrategikoa ere espedientean daude, eta jendaurrean jarriko dira aipatutako epean.

**3.- BERTAN BEHERA UZTEA**, bi urteko gehieneko epean, onarpenak, baimenak eta lizentziak antolamenduaren eremu osoan, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 85. artikulua arabera.

Bertan behera uzte hori, betiere, aldaketa hau behin betiko onartzen denean iraungiko da.

Espedientea Udal Bulego Teknikoan jarriko da ikusgai, berrogeita bost (45) laneguneko epean, iragarkia azken aldiz argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek aukera izan dezaten alegazioak aurkezteko.

**4.- Lehen onarpenaren BERRI EMATEA**, sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei, jakinaren gainean egon daitezten eta txostena egin dezaten

*45 laneguneko epe berean, lurraldea antolatzeke planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 27.2 artikuluaaren arabera.*

Aldaketa puntualaren espediente urbanistikoa jendaurrean egon den bitartean, proposamen eta alegazio hauek jaso dira:

- Marearteko Dikearen proposamena, 2021eko maiatzeko Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatua.
- Ane Miren Uranga Egurzak Orioko San Nikolas arrantzale-kofradiaren izenean aurkeztutako alegazioa, 2021eko maiatzaren 26koa eta 2.788 sarrera-zenbakia duena.
- Ignacia Leunda Zubizarretak eta Jose Miguel Leunda Zubizarretak aurkeztutako alegazioa, 2021eko maiatzaren 27koa eta 2.801 sarrera-zenbakia duena.
- Pedro Aiestaran Etxabek Dike-Orio, SLren izenean aurkeztutako alegazioa, 2021eko maiatzaren 27koa eta 2.802 sarrera-zenbakia duena.

Espediente urbanistikoaren behin-behineko onarpeneko dokumentuari buruz Tomás A. Mingot abokatuak eta Maria Lasa arkitektoak 2021eko abenduaren 20an emandako kanpoko txostenak, ondorioetan, hau adierazten du hitzez hitz:

*Una vez analizado el documento de Modificación Puntual del PGOU de Orio en el Ámbito discontinuo «DIKE-KOFRADIA», cabe concluir que el documento propuesto para la Aprobación Provisional de 30 de Diciembre de 2021:*

- *Se adecua a la normativa urbanística vigente.*
- *Contiene los documentos legalmente exigibles que deben integrar el Expediente Administrativo y el Documento Técnico.*
- *Cumple con rigor y hace suyas las exigencias que los distintos órganos sectoriales han pormenorizado exhaustivamente en sus respectivos Informes Sectoriales.*
- *Respeto las exigencias legales relativas a diferentes parámetros urbanísticos, entre ellos los relativos a la edificabilidad urbanística, el número de viviendas, la zonificación global y el conjunto de estándares de sistemas locales.*

Espediente urbanistikoaren behin-behineko onarpeneko dokumentuari buruz udal-arkitektoak 2021eko abenduaren 20an emandako txosten teknikoak, ondorioetan, hau adierazten du hitzez hitz:

*El documento presentado y los trámites previos realizados se consideran completos para su aprobación provisional y su remisión al órgano competente para su aprobación definitiva.*

*Los parámetros planteados en dicha modificación son coincidentes con el convenio firmado, si bien en la última propuesta del edificio de Cofradía la dotación privada construida en dicho edificio es de 187m<sup>2</sup> en vez de los 500 previstos. Esta diferencia se compensa mediante un local en Dike que se incluye en la nueva ordenación del ámbito Dike- kofradia.*

*Los parámetros planteados en la modificación así como los estándares dotacionales cumplen la normativa en vigor.*

*No obstante, la propuesta de modificación puntual planteada para el ámbito Dike-Kofradía, por los motivos expuestos en el corpus de este informe, no es a nuestro entender adecuada ni conveniente, ni está suficientemente justificada. Consideramos que las edificabilidades propuestas así como la ordenación planteada no son adecuadas para el entorno en el que se ubica. Es por ello, que informamos desfavorablemente para su tramitación y aprobación.*

Aipatutako txosten teknikoetan jasotzen dena kontuan hartuz, udal-idazkariak dio Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatutako eta Dike-Kofradia eremu urbanistiko ez-jarraituei dagokien Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualak betetzen duela indarrean dagoen legeria urbanistikoa eta, beraz, orain, udalbatzarrari dagokiola behin-behineko onartzea, jendaurreko epean jasotako alegazio eta proposamenak banan-banan ontzat emanez edo atzera botaz, egokiera-irizpideen eta ordenamendu urbanistikoko irizpideen arabera, eta aldez aurretik gaia Hirigintza batzordean diktaminatuta. Onarpena udalbatzarraren gehiengo osoak eman behar dio dokumentuari; hau da, 13 udalbatzakideetatik 7k gutxienez onartu behar dute; eta, ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali behar zaio espediente urbanistikoa, behar bezala diligentziatuta, behin betikoz onartu dezan, egoki bada, Euskadiko Lurralde Antolamendu Batzordeak aldez aurretik txostena emanda.

Espedientearen parte dira, baita ere, inpaktu linguistikoa ebaluatzeko dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa. Horiek ere jendaurrean jarri dira berrogeita bost (45) egun balioduneko epean, lurraldea antolatzeko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 5.2 artikuluan eta 27.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Hirigintza-batzordeak, 2021eko abenduaren 23an egindako bilkuran, aipatutako espediente urbanistikoa jendaurrean egon den bitartean aurkeztu diren proposamen eta alegazioei buruzko diktamena eman zuen, termino hauetan:

1. Ontzat ematea osorik 2021eko maiatzeko Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatutako Marearteko Dikearen proposamena, zentzu honetan: Ekipamenduetarako lursail publiko bat sartzea, marearteko dikearen eta haren ondoko ontziolaren balioa nabarmentzeko eraikitako espazio bat izan dadin, eta,



horrekin batera, Plan Estrategikoa indartzea, Orioren ondare natural eta kulturalaren balioa nabarmentzeko.

Proposamen honek lurzatiak, dotazioak eta eraikinak berrantolatzen ditu, funtsezko parametro urbanistikorik aldatu gabe. Eutsi egiten zaie eraikigarritasun urbanistikoari, etxebizitza babestuen estandarrei eta indarrean dagoen Lurzoruari buruzko Legeak eta haren dekretuek eskatzen dituzten bestelako dotazio-estandarrei, azalera-doikuntza txikiak bakarrik eginda.

Aurreikuspen horrek babes ofizialeko etxebizitzetarako eraikigarritasun urbanistikoa lurzati bakar batean (a.2.VPO-I) kontzentratzen du, eta etxebizitza publikoaren sustapenaren kudeaketa errazten du. Era berean, beheko solairuko hirugarren sektoreko erabilerako lokalak g.ECI dotazio-partzelaren mugakideak izango dira eta batera edo modu independentean funtzionatu ahal izango dute.

Hori dela eta, 436,10 m<sup>2</sup> antolatu ahal izango dira dotazioetarako lursail publiko berri batean (g.EC2); lursail horretan garai bateko itsasontzi baten tamaina naturaleko erreplika kokatu daiteke, auzo berrirako sarreraren eta herriko irteeraren sinbolo bihurtu daitekeena. Proposamen honetan g.ECI aldaketaren antolamenduan planteatzen den lagapeneko dotazio publikoko lurzatia 714,51 m<sup>2</sup>-ra murrizten da, eta bien artean 6,94 m<sup>2</sup> gehitzen dio aurreko antolamenduan kontzeptu horretan planteatutako azalerari.

2. Ontzat ematea partzialki Ane Miren Uranga Egurzak Orioko San Nikolas arrantzale-kofradiaren izenean 2021eko maiatzaren 26an aurkeztutako alegazioa, 2.788 sarrera-zenbakia duena, zentzu honetan: Kofradiaren eraikin berrian babes-zorpeko eremuarekin bateragarriak diren erabilerak soilik garatu daitezke, eta horien artean, Kofradiaren berariazko erabilerak. Erabilera horiek, itxuraz, murriztu daitezke eraikitze eskubideari dagokionez (500 m<sup>2</sup>t); horrela, gainerako erabilerak egokitzapen zaila izango lukete kokapen horretan eta, beraz, koherentea da DIKE eremura mugitzea erabilera komertzial tertziarioari dagokion azalera, erabilera dotazional pribatuari eta erabilera tertziario komertzialari dagozkion erabilera-koefizienteak aldeztu aurretik aplikatuz. Horren xedea izango da Orioko Udalari espezিয়ে ematea Arrantzaleen Kofradiaren eskubideei dagokien eraikigarritasunaren %15aren lagapena, osorik edo partzialki egindako abonua gisa, aldean artean sinatu zen hitzarmen urbanistikoak jasotzen duenaren arabera.
3. Atzera botatzea osorik Ignacia Leunda Zubizarretak eta Jose Miguel Leunda Zubizarretak 2021eko maiatzaren 27an aurkeztutako alegazioa, 2.801 sarrera-zenbakia duena, zentzu honetan: Orioko Udalak, Dikeko Kontzertazio Batzordeak eta Arrantzaleen Kofradiak aho batez eta alegaziorik gabe onartutako hitzarmen urbanistikoak (GAOn 2019ko martxoaren 14an argitaratua) aurreikusten du Kofradiaren eraikin berriak 2.000 m<sup>2</sup>(t)-ko eraikigarritasuna izatea profil honekin: beheko solairua + 3 solairu; 1.500 m<sup>2</sup>(t) erabilera publiko dotazionala izango liriteke eta gainerako 500 m<sup>2</sup>(t) erabilera dotazional pribatukoak, Arrantzaleen Kofradiaren titulartasunaren



pean. Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntualak, DIKE-KOFRADIA eremu ez-jarraituan, besteak beste, sinatutako hitzarmenaren akordio hori jasotzen du.

4. Atzera botatzea osorik Pedro Aiestaran Etxabek Dike-Orio, SL enpresaren izenean 2021eko maiatzaren 27an aurkeztutako alegazioa, 2.802 sarreraz-zenbakia duena, zentzu honetan: Egia da Itsasertzetako Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko martxoaren 18ko txostenak kontrako iritzia agertzen duela Kofradiako eraikin berrian aurreikusitako erabilerei buruz; baina Zuzendaritza Nagusi horrek beste txosten bat eman behar du aldaketaren behin betiko onarpenaren aurretik eta uste dugu txosten berri horrek zuzendu egingo duela aurrekoa, zeren eta, bitartean, UR AGENTZIAK Kofradiaren eraikin berriaren erabilerei buruzko aldeko txostena eman baitu, 2021eko maiatzaren 27an, eta, bertan dioenez, erabilera horiek sartu daitezke Itsasertzetako Legeak baimentzen dituen artean; bestalde, Autonomia Erkidegoko administrazioa da, eta ez Itsasertzetako Estatuko Administrazioa, eskumena duena jabari publiko itsas-lehortarreko babes-zorpeko eremuetan baimenak emateko.

Bestalde, Orioko Udalak, Dikeko Kontzertazio Batzordeak eta Arrantzaleen Kofradiak aho batez eta alegaziorik gabe onartutako hitzarmen urbanistikoak (GAOn 2019ko martxoaren 14an argitaratua) aurreikusten du Kofradiaren eraikin berriak 2.000 m<sup>2</sup>(t)-ko eraikigarritasuna izatea profil honekin: beheko solairua + 3 solairu; 1.500 m<sup>2</sup>(t) erabilera publiko dotazionalakoak izango lirateke eta gainerako 500 m<sup>2</sup>(t) erabilera dotazional pribatukoak, Arrantzaleen Kofradiaren titulartasunaren pean. Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa Puntualak, DIKE-KOFRADIA eremu ez-jarraituan, besteak beste, sinatutako hitzarmenaren akordio hori jasotzen du

Ikusita Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta Lurraldearen Antolamenduko Planak eta Hirigintza Antolamenduko Tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan xedatutakoa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, informazio publikoaren emaitza eta eskumena duten erakundeek emandako txostenak ikusita, Hirigintza-batzordeak 2021eko abenduaren 23an diktaminatutakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH BILDU), Ainara Munduate Iguaran (EH BILDU), Xabier Ibarguren Azkue (EH BILDU), Beñat Solaberrieta Albizu (EH BILDU), Bakarne Oliden Albeniz (EH BILDU), Bittor Andres Alkorta (EH BILDU), Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbieta (EAJ) eta Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ); guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

**1.- ONTZAT EMATEA ETA ATZERA BOTATZEA** jendaurreko epean aurkeztutako alegazio eta proposamenak, erabaki honen azalpenean jasotako terminoetan, Hirigintza-batzordeak 2021eko abenduaren 23an emandako diktamenaren arabera.

**2.- BEHIN-BEHINEKOZ ONARTZEA** Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntuala, DIKE-KOFRADIA eremu urbanistiko ez-jarraituari dagokiona eta Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatu duena, funtsezko aldaketarik egin gabe lehen onarpeneko erabakiarekiko eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 28. artikuluan ezarritakoa betez.

Inpaktu linguistikoaren ebaluazioaren dokumentua eta ingurumeneko azterketa estrategikoa ere espedientean daude.

**3.- BIDALTZEA** aldaketa puntualaren espediente urbanistikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari dagokion txostena egin dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean. Txosten hori zuzenean jakinaraziko zaio Udalari, planaren tramitazioarekin segi dezan.

**4.- BIDALTZEA** aldaketa puntualaren espediente urbanistikoa ingurumen alorreko organoari, ingurumeneko deklarazio estrategikoa eman dezan, gehienez ere bi hilabeteko epean, espediente osoa jasotzen duenetik kontatzen hasita.

Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 29. artikuluan xedatutakoa betez, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena eta ingurumeneko ebaluazio estrategikoaren emaitza ikusita, hiru hilabeteko epean, aipatutako aldaketa puntuala behin betiko onartuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak egindako txostenetik eta ingurumeneko ebaluazio estrategikoaren emaitzatik ondorioztatutako baldintzetan.

Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate zinegotziak hartzen du hitza, Hirigintza-batzordeko presidentea den aldetik, eta gaiaren tramitazioak izan duen ibilbide historikoa azaltzen du, luzea, zaila eta oztopoz betea izan baita. 2005ean, Orioko Udalak hitzarmena sinatu zuen Orioko arrantzale-kofradiarekin, KOFRADIA eremu urbanistikoa garatzeko. Uraren Euskal Agentziak (URA) gaiari buruzko txosten teknikoak eman zituen, eta Itsasertzetako Zuzendaritza Nagusiak ere bai; azken horrek kontrako txostena eman zuen, Itsasertzetako Legearen 25. artikuluan ezarritakoa betez, jabari itsas-lehortarreko babes-zorpeko eremuan debekatuta dagoelako bizitoki-erabilera; adierazi zuen, baita ere, 2010ean, Orioko Kofradiaren eraikina aurri-egoera berehalakoan zegoela deklaratu zela.

Ainara Munduatek adierazten du, baita ere, DIKE eremu urbanistikoari dagokionez, ez zela egin beharreko Plan Berezia egin, Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak balio gabetu egin zirelako zegokien azterketa finantzariorik ez zegoelako. Bestalde, 2012an, Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zen behin betikoz. 2014an berrikusi egin zen; eta 2015ean jendaurrean jarri zen.

Bukatzeko, Ainara Munduatek dio berretsi egin nahi duela gai honi buruz 2020ko abenduaren 23ko udalbatzarrean adierazitakoa: alegia, EH Bilduren iritziz, antolamendu urbanistiko honek herriaren behar asko asebetetzen dituela: ekipamendu publikoak, berdeguneak, mugikortasun-aukera berriak... eta Dike eta Kofradiaren eremu urbanistiko ez-jarraitua toki pribilegiatua dela.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, bere talde politikoak emandako abstentzio-botoa justifikatzeko. Adierazten du Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntual hau onartzeko ibilbidea luzea izan dela baina EAJren taldea, agintaldi honetan, «berria» dela. Adierazten du, baita ere, nabarmentzekoa iruditzen zaiola onartutako aldaketa puntualean hegalkinak %25ean zenbatzen direla eta Orioko gainerako eremu urbanistikoetan, berriz, %50ean zenbatzen direla; adierazten du, baita ere, faltan bilatzen duela etxebizitza babestuen ponderazioa zehaztea.

Lourdes Salsamendik adierazten du, bestalde, harrigarria eta oso azken ordukoa iruditzen zaiola 2021eko maiatzeko Dikeko Kontzertazio Batzordeak sustatutako Marearteko Dikearen proposamena, goian azalduta dagoena.

Adierazten du, baita ere, bere talde politikoari oso kezkarria iruditzen zaiola Kofradiaren esparru urbanistikoan 3,5 metroko hegalkinak aurreikustea.

Amaitzeko, adierazten du bere talde politikoak abstentzio-botoa eman duela, koherente izateko 2020ko abenduaren 23ko udalbatzarrean emandako botoarekin, eta badakiela aldaketa puntualaren onarpenak betetzen duela indarrean dagoen legeria.

Ana Priede zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du, lehenik eta behin, gaur oso egun garrantzitsua dela berarentzat, bai pertsonalki eta baita Orioko Udaleko zinegotzi gisa, onartu den aldaketa puntualak 5 urteko ibilbide luzea izan duelako eta irtenbidea ematen diolako Orioko Kofradiaren eraikinaren arazoari.

Bestalde, Ana Priedek adierazten du behin-behinekoz onartutako antolamendu urbanistiko berriarekin irtenbidea ematen zaiola kofradiaren eraikina eraistearen arazoari eta aldaketak bide ematen duela beste arazo batzuk konpontzeko, eta kontuan hartu behar dela ibilbidearen amaieran kofradia udal-eraikin bihurtuko dela.

Amaitzeko, adierazten du onartu den aldaketa puntuala guztiz legezkota dela eta zuzen betetzen duela hirigintza arloko legeria, nahiz eta traba asko izan dituen udal-tramitazioan. Hori dela-eta, eskerrak ematen dizkie tramitazioan lagundu duten guztiei, bertan daudenei eta ez daudenei.

Jose Angel Iparraguirre zinegotziak (ORAIN) hartzen du hitza, eta adierazten du bere ibilbide politikoa 10 urtekoa izan dela, eta espediente urbanistiko hau izango dela benetan marka utziko diona. Adierazten du, baita ere, pena bat dela ez onartu izana aho batez, eta eskerrak ematen dizkie tramitazioan lagundu duten guztiei, bertan daudenei eta ez daudenei.

## **5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du onartu den aldaketa puntualak korapilo problematikoak dituela, baina proiektu ilusionagarria dela Orioko herriarentzat. Adierazten du Udalak beti interes orokorra hartu duela kontuan eta eskerrak ematen dizkiela proiektua onartzeko lan egin duten guztiei.

Amaitzeko, esaten du 2021. urtea oso urte zaila izan dela, bai onartu berri den aldaketa puntualaren tramitazioari dagokionez eta baita COVID-19aren pandemiak izan duen eraginari dagokionez ere; eta, beraz, herritarrei urte berri on-ona opa diela.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**